

Zabalik dago dagoeneko udal tasetan hobariak eskatzeko epea

- **Abenduaren hasierara arte egongo da eskaerak aurkezteko denbora**
- **Aurreko ekitaldietan salbuespen hori eskatuta izanda ere, orain ere eskabidea bete beharko dute hala nahi dutenek**

Andoainen, 24-10-29. - Hala behar duten herritarrek, honezkero eska ditzakete udal tasen (ura, zaborra eta estolderia) salbuespen edo hobariak.

Eskaera aurkezteko epea: 2024/12/02

Non/nola aurkeztu:

-Aurrez aurre:

ATARIA - Herritarrentzako Arreta Zerbitzua (udaletxeko beheko solairua):

Ordutegia: 8:00 - 14:30 (ostegunetan 8:00 – 17:45)

-Internetez:

*Zerbitzu telematikoak: egoitza elektronikoa

*Erregistroen Interkonexio Sistemaren barruko edozein administrazio publikotako erregistro arloko arreta-bulegoak (udalak, foru-aldundiak, autonomia-erkidegoak, estatuko administrazioa edo mendeko erakundeak)

*Postetxeko EBBE zerbitzua

Aurreko ekitaldietan salbuespen hori eskatuta izanda ere, orain ere eskabidea bete beharko dute. Hala egin ezean, salbuespena baliogabetu egingo da. Kontuan izan aurkezteko epea igaro ondoren ez dela eskaerarik onartuko.